

AITZINA

Editorea: Fermin Mugaritz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.  
Helbidea: Rincón de la Aduna, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafakobi.net

## NORANTZA

**Pello Mariñelarena**  
 OINARRIAK ELKARTEKO KIDEA

# «Egungo euskararen legea aldatzea dugu helburu»

Euskararen aldeko ekimenak ugariak dira Euskal Herri osoan. Nafarroan, besteak beste, Oinarriak elkarteak da euskara suspertzeko eta euskaldunon eskubideak errespetatuak izan daitezkeen lanean diharduena. Oraingoan, Nafarroako Parlamentuaren birtatez euskararen legea aldatu nahi dute.

nituzke. Batetik, gizarte eta euskararen arteko lotura gero eta sendoagoa dela argi dago eta euskaldunek herrialde honetan euskarak bizi dituen erasoak bukarazi behar direla argi adierazi dute. Bestetik, matrikulazio kanpainak nafarren erdiak baino gehiagok euskararekin kontaktua duela adierazten dute. Kontrako jarrera adierazten du, ordea, Nafarroako Gobernuak, etengabe ari baita euskarari oztopoak jartzen. Zentzu horretan, gizarteraren nahieren aurka doala esan daiteke eta gizarteraren euskararen alde dagoen indar hori guztia nola geldiarazi ez du asmatzen.

## egiten ari zaretena?

Tresna honen izenburua "Lege berri baterantz" da. Dokumentu hau eskuan dugula, bi helburu markatu ditugu: batetik, herriz herri eta arloz arlo euskararen egoeraren gaineko azterketa bat egitea herrialde osoan. Bigarrenik, Nafarroako Parlamentuan euskararen legea blokeatuta dago aspaldidanik. Gainera, Nafarroan dagoen euskararen legea lotsagarria da, herrialdea hiru zatitan banatzen baitu eta nafar guztiok eskubide berdinak izateko eskubidea ezabatzen baitu. Horren aurrean, egungo euskararen legearen aldaketak ezinbestekotzat jotzen dugu. Helburu hori lortzeko sinadura bilketaren kanpaina dugu martxan.

## Eta, sinadura bilketa horren ondoren, zer?

Helburua 25.000 sinadura bilteza dugu. Herri lege-ekimen baten moduan aurkeztu nahi genuen Parlamentuan, baina, egungo euskararen legea Foru Hobekuntza oinarriturik dagoenez, ezin zaio lege horri HL.rik egin. Sinadurak eskuan ditugula, Parlamentuan dauden alderdietara jo beharko dugu, alderdiek dokumentu hau beren gain har dezaten. Alderdiaren batek bere gain hartuz gero, dokumentua Parlamentuan eztabaidatu eta egungo legea aldatzea izango litzateke helburu nagusia.

## Zein da jendearen harrera?

Jendearen harrera oso ona da. Zentzu horretan, mezu bat lutzatzea gustatuko litzaidake: nafarrok gai gara eta gai izango gara etorkizuneko euskararen alde borrokatzeko eta gauzak egiteko, baina horretarako ezinbestekoa da guztiok elkarlanean aritzea. Hor dago gakoak.

rau islatzen duen tresnarik ez zegoela konturatu ginen.

## Zein da euskarak egun Nafarroan bizi duen egoera?

Nafarroan euskararen egoera aztertzerakoan, bi alderdi ezberdinduko

Ofizialtasuna adieraziko lukeen tresna dagoeneko esku artean duzue. Zer da horren inguruan

## AMAIA MUNDIÑANO

Pello Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Elkartearen lehendakari eta Oinarriak elkartearen kide dugu. Azken elkarte honek martxan jarri berri duen sinadura bilketaren kanpainaren gainean aritu gara harekin. Helburu nagusia, Nafarroan euskararen normalizazioa eta ofizialtasuna lortzea.

## Zer da Oinarriak Elkarteak?

Oinarriak Nafarroan euskalgintzaren inguruan lanean ari garen talde ezberdinen bilgunea da. Talde asko gaude bertan lanean eta egun, talde iraunkorren parte hartzen dutenak Nafarroako ikastolak, AEK, IKA, Administrazioaren inguruko hainbat talde, EHE, Nafarroako Bertsolarien Elkarteak, Euskal Herria Irratia, Nafarroako Udaltzuetako euskara teknika-riak, Sortzen eta LAB-Irakasgintza dira. 1991n sortu zen Oinarriak eta hasierako helburua euskarak jasaten zituen erasoak salatzea zen nagusiki. 1997an, aldi, helburua salaketa bakarrik izatetik, euskararen normalizazioa, ofizialtasuna, lortzera pasatu zen. Ofizialtasuna lantzen hasi ginenean, ordea, be-



Karlos Corbelli

## ZIRTOKA



## Txillardegui

## Moralak

«Zut uste «moral» hitza gaur egun inon maizago aipatzen denik Euskal Herrian baino.

Geronek aipatu ohi dugu, jakina, mendeetan baren baren jasan dugun elizkerien ondorioz.

Baina are maizago, halere, espainiar etsaiek.

Hori baino okerrago: agintzen dutenen joko «demokratiko» gorraipatzen baita, batetik; eta, denbora berean, zapalduon «moralik eza» gaitzesten.

Ez omen du jadanik dikotomia horretan inork sinesten. Baina, Euskal Herriari dagokionez, ez nago ni batere zuz.

Baina bego hori bere horretan.

Zer ari da gertatzen Txetxeniari? Berrehun milioi biztanleko Estatu inperialista bat milioi bakar bateko herria txikitzen, xehatzen, errausten ari dela, bere bururaren jabe nahi duelako.

Hots, gaur, Errusiak, mafia guztiaren biltoki bihurtua den Estatuak, «zerbait» behar zuen bertako miseriak izkutatzeko. Eta, horretarako, primeran dator Txetxeniako genozidioa.

Aste honetako «Guardian Weekly»-an irakur daitekeenez, Europa ofizialeko kanpo-harremaketako ministroek txetxeniarren hiletari ez-ikusia egitea erabaki dute: «European Union Foreign ministers backed away from tough action against Russia» irakurtzen dugu hitzez hitz. Horra hor gure demokraziaren jokoa.

Ipar Errusiako deskalabroa osoa delarik (irabaziertaina gaur hilabetezko \$37 delarik, preseski), eta oro har egoera ekonomiko sinets ezin izanik, txetxeniaren «garbiketa etnikoak» izenki ez du.

Baina «moralak» aipatzen ditugun «demokratei» hori berdin zaie. Estatuak baita «eskubide ororen iturria»...

## Aitzindariak

JUSEF EGIATEGI  
X V I I I

«Ehiztela EN TZIÑIK GAUDE HUSKARARIK  
LANKET HONIK SORTH EZTATEKIALA...»



«BENO IZANIK ERE BOFIA BENO GOGO  
RRAGO MARDOTIKO DUGULA DUT SINHE  
TSIAO...»



«BADAITE OTHOITZE LIBURU TXAR ZONBEI  
TXE DIELA SINHESTE HORI SORTHU TA  
GOGORTU...»



«HORTAKOZ MITZO HAREN OHORIAREN  
GATIK LUMARI NIZ HEBEN LOTHU...»

